

euskarazko jostailuen GIDA

2005

euskarazko jostailuen gida 2005



Esku artean duzun gidak merkatuan dauden euskarazko jostailu eta jolas moten inguruko informazioa eskaini nahi die guraso, hezitzaile zein irakasleei. Era berean, material ludikoa era egokian aukeratzeko aholkuak eman nahi ditu.

Formatu klasikoa duten 66 jostailu eta euskarri informatikoa duten beste 55 aurkitu ahal izango dituzue datozen orriotan. 2005. urtean merkaturatu diren jostailuak jaso ditugu aurretik eskuratu zitezkeen zerranda osatzeko. Aurten kaleratutako jostailuak zein diren erraz antzeman dadin, 'berria' dioen oharra jarri diegu.

Azterketa psikopedagogikoa

ESAR sistema erabili dugu gida antolatzeko. Denise Garon psikologoak sortu zuen sistema hori 1982. urtean, eta umearen garapen maila kontuan izanik, jostailuak lau multzotan banatzen ditu. Sailkapena egiteko, ekintza ludiko motak eta jarrerak hartzen ditu kontuan, ikuspegi kognitibo, instrumental, sozial, linguistiko eta afektibotik.

Fitxa

Gida honek, urte osoan zehar haur eta gaztetxoek heziketa prozesuak bultzatzeko baliagarri izango den tresna teknikoa izan nahi du. Jostailuaren bidez lortu nahi duzuen helburuaren arabera, bat edo beste aukeratzeko lagungarri izango zaizkizue aurrean dituzuen orriak. Horretarako, jostailu eta CD-Rom bakoitzaren ezaugarriak eta heziketa gaitasunak jasotzen dituen fitxak osatu ditugu. Era berean, jostailua zein adinetarako egokia den ere ikusi ahal izango duzue.

Banaketa

Banaketari dagokionez, EUSKARAZKO JOSTAILUEN GIDA 2005 bi eratarazabalduko dugu: paperean, aurreko urteetan egin dugun moduan, baina berrikuntza bat ere izango dugu. Aurten www.aisia.net web orrian gida ikusteko aukera izango baituzue.

Egunero egin daiteke jolas, beharrezkoa da hala egitea, eta horretarako tresnak, heziketarako beharrezkoak, jostailuak dira. Anima gaitetzen bada jolas egitera! Haur eta gaztetxoak jakina, baina baita helduak ere!

AISIA BIZIZ EGITEN DUGU

ARGITARATZAILEA	URTXTINTXA ESKOLA
KOORDINAZIOA ETA EGILEA	JOXE JIMENEZ
AHOLKULARITZA TEKNIKOA (EUSKARA)	HITZURUN S.L.
ERREDAKZIOA	OLATZ LASAGABASTER
ARGAZKIAK	URTXTINTXA ESKOLA
MARRAZKIAK	ASER LERTXUNDI
DISEINUA	URTXTINTXA ESKOLA
MAKETAZIOA ETA INPRIMATEGIA	ANTZA S.A.L.
KOPURURA	5.000 ALE
ISBN	84-609-8256-4
LEGE GORDAILUA	SS-1564/05

URTXTINTXA ESKOLA

Mundaiz, 8. 2 E • DONOSTIA
tfnoa.: 943 270033
faksa: 943 270079
e-posta: aisiabiziz@aisia.net

www.aisia.net/aisiabiziz.htm

Aisia Biziz aldizkariak ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

Aisia Biziz aldizkariako artikuluek edonon eta edonoz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizueke.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte eta Erakunde Harremanak
Euskararen Normalizatzeko Zuzendaritza Nagusia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIALA
Kultura, Gaztortza eta
Kortu sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagunduriko argitalpena

Jostailuak aukeratzeko gomendioak	3
Adinak, gaitasunak eta jostailuak	4
Jostailuen sailkapena	7
Non jolastu	40
Jostailugintzako ekoizleak	43

JOSTAILUAK EROSTEKO GOMENDIOAK

Jolasak haurraren garapenerako ezinbestekoak direla esan daiteke. Alde batetik, bere burua eta ingurua ezagutzeko aukera ematen diote, eta bestetik, komunikazio eta sozializazio tresna garrantzitsua dira. Jostailua, berriz, jolasaren oinarritzko laguntzailea dela esan dezakegu. Maite Garaigordobil, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da eta lan handia egin du jolasen inguruan; jostailuak aukeratzeko eta erosterako orduan, irizpide hauei jarraitu behar zaiela uste du berak.

- 1 Adina eta ahalmenak:** Jostailuak haurraren adin eta beharretara egokitu behar du; baita mugimendu ahalmenetara eta ahalmen intelektual, afektibo eta sozialetara ere. Bere beharrak asetu behar ditu (asmatzekoa, sortzekoa, bilatzekoa...). Egokiena, haurraren garapenaren dimentsioak suspertuko dituzten jolasak erostea da.
- 2 Irudimena eta ekintza:** Jostailuak parte hartzeko aukera eman behar dio haurrari, bere ikasketa prozesuan eraginkorra izan dadin.
- 3 Hainbat jostailuren konbinazioa:** Egitura sinplea duen jostailuak fantasia garatzeko aukera emango dio umeari, baina komenigarria da mota horretakoak jostailu sinbolikoen erabilerarekin tartekatzea.
- 4 Bakardadea eta elkarrekintza:** Bakarka zein beste hurrekin aritzeko moduko jostailuak izan behar dituzte. Bakarkako jolasak fantasia pertsonalak adierazteko aukera emango dio, eta besteekin aritzen denean, komunikaziorako tresna izango da jostailua haurrarentzat.
- 5 Rolak eta indarkeria:** sexu bereizketarik eta indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten ez duten jolasak dira egokienak.



Haurren jolasak librea izan behar duen arren, jostailuaren hautaketa oinarritzkoa da bere garapena bideratu eta jolasaren kalitatea bermatzeko. Haurrak duen adinaren arabera, jostailu bat edo beste aukeratzea izango da egokiena. Hona hemen proposamen batzuk.

0-6 hilabete

Jaioberria mundua ezagutzen ari da eta jostailurik egokienak bere sentimenak bizkortu eta bere gorputza ezagutzera bultzatzen dutenak dira. kontaktu fisikoa (laztanak, muxuak...) eta musika ere garrantzi handikoak dira.

Umearen arreta ukimena, ikusmena eta entzumenaren bidez pizten da eta heldu baten laguntza ezinbestekoa izango du jostailu horiek erabili ahal izateko. Bere gorputza ezagutu eta forma eta kolore ezberdinak ezagutaraziko dizkioten jostailuak behar ditu.

6-12 hilabete

Haurrak pixkanaka bere esku eta gorputzaren mugimendua hobeto kontrolatuko du eta nahi dituen objektuak lortzeko mugitu egingo da. Ahotsak ezagutzen hasiko da eta hitzen bat edo beste esaten hasiko da. Helduekin jolas egiten duen une horiek garrantzi handikoak izango dira komunikaziorako.

Umearen independentzia prozesua hasten da eta etapa honetan bere inizatiba garatzeko aukera emango dioten jostailuak dira egokienak; mugimendu bat egin eta horrek zer ondorio eragiten duen jakiteko edo ikusteko aukera emango diotenak.

1-2 urte

Mugimenduak garrantzi handia du; dena ukitu behar du eta leku guztietara iritsi, horregatik espazioan barrena ibiltzeko aukera emango dioten jostailuak behar ditu. Jada badabil eta errazagoa izango da gauzak hartzea...

Hitzak erabiltzen ditu gauzak adierazteko eta hiztegia handitzen doa. Bere autonomia adieraztea gustatzen zaio. Helduekin jolastea gustukoa du, eta gainera, bere lorpenak zoriondu zain egoten da. Gertaerak erlazionatzeko aukera ematen duten jostailuak behar ditu, kausa-efektua ulertzen lagundu eta ekintza sinpleen imitazioa bultzatzen dutenak.

2-3 urte

Haurren autonomia mailak nabarmen egin du gora; badira hilabete batzuk oinez hasi zenetik, bere gorputza hobeto ezagutzen du eta hobeto kontrolatzen du bere ingurunea. Gauzak berak bakarrik egiteko beharra du. Lengoia ere hobeto menderatzen du eta etengabe imitatzen ditu helduen ondoan bitzitakoak, beste haurrekin egoteko gogoia du, askotan beraiek ezagutzera gerturatuko da eta helduekin ere egon nahiko du, baina ikusle moduan.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Mugikariak (sehaskatik ikus ditzake eta musika izatea komeni da), lanparak (hainbat kolore eta formatakoak eta mugitzen diren argiak dituztenak), ispiluk (haurrak bere aurpegia ikusteko tamainakoak, mugitzen denean formak nola aldatzen diren ikus dezan, puskatzen ez direnak), bertan etzateko moduko alfombra eta koltxonetak (soinua eta kolore asko dituztenak), txintxirrinak, ahora eramateko moduko gomazko panpin eta jostailuak...

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Mugikariak, kolore eta argi askotako lanparak, soinua eta mugimendua duten jostailuak (ukitzean martxan jartzen direnak), ispiluk, zutik jartzen lagunduko dioten jostailuak, soinua dutenak eta balantza egiten dutenak, koska egiteko moduko panpin eta jostailuak, ilerik ez duten oihalezko panpinak, pilotak eta uretarako jostailuak. Animalia handiak ere bai, gainera igo edo botatzeko.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Askotariko argiak dituzten lanparak, ispiluk, mugimendua eta soinua duten jostailuak, egurrezko edo plastikozko jostailuak jotzeko edota era askotara ordenatzeko, uretan eta hondarreetan jolasteko jostailuak, ibiltzen lagunduko dioten jostailuak, hainbat tamainako pilotak...

JOLAS SINBOLIKOAK

Pinturak, jolaserako liburuak, oihalezko panpinak, panpinekin jolasteko osagarriak, telefonoak, pelutxeak, ibilgailuak...

ERAIKUNTZA JOLASAK

Egur edo plastikozko jostailuak, pieza bat bestearen barnean sartzeko aukera ematen dutenak, baina pieza gutxiak.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Soinua eta mugimendua duten jostailuak, musika tresnak, gorputz osoa ikusteko moduko ispiluk, ordenatu eta bata bestearen gainean jartzeko aukera emango dioten jostailuak, uretan eta hondarreetan jolastekoak, pilotak, txirristak, trizikloak, bultzatzeko jostailuak, mugimendua eta soinua dutenak.

JOLAS SINBOLIKOAK

Margoak, ipuin eta liburuak, panpinak eta osagarriak, pelutxeak, barnean jolasteko etxeak, eguneroko bizitza imitatzen duten jostailuak (sukaldea, plantxa...), mozorroak.

ERAIKUNTZA JOLASAK

6-18 bitarteko piezak dituzten puzzleak eta eraikuntzak.

3-5 urte

Jolas sinbolikoak protagonismo handia hartuko du etapa honetan. Eskolan hasi da eta komunikaziorako duen gaitasunak bere harreman sozialak zabaltzea dakar. Kantitate, espazio eta denboraren lehen nozioak barneratuko ditu eta jakin-min handia izango du, guztia galdetu eta jakin nahiko du. 'Zergatik' galderaren adina iritsi da. Jolas egitea du lehentasuna; batez ere, besteekin jolas egitea.

Eskuak eta bere gorputza askoz ere hobeto kontrolatzen ditu. Etapa amaieran, mahai jokoak interesatuko zaizkio; batez ere, bere ezaguerak adierazteko baliagarri izango zaizkionak, letra, zenbaki eta koloreak adibidez.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Txibak, kaleidoskopioak, musika tresnak, uretan eta hondarrean jolastekoak, bata bestearen barnean sartzekoak, lau gurpileko bizikletak, patinak, akuilu-makuluak, hainbat neurritako pilotak...

JOLAS SINBOLIKOAK

Koloretako margo eta klarionak, arbelak, panpinak (garbitu, orraztu eta janzteko) eta horien osagarriak, pelutxeak, ingurune ezberdinen erreproduzioa (zirkoa, baserria, piraten untiak, panpin-etxeak...), gauzak kargatzeko ibilgailuak, trenak, ofizioak imitatzeo jolasak (pelukeria, saltzaileak, medikuak...), txotxongiloak, telefonoak, mikrofono eta magnetofonoak...

ERAIKUNTZA JOLASAK

30 pieza arteko puzzleak, piezak bata bestearen barnean sartzeko jostailuak, moldatzekoak, galde-erantzunak dituzten joko elektronikoak (zenbaki edota soinuen ezagutzari buruzkoak), bolako, pilota eta belkroa duten dianak...

6-8 urte

Beste haurrekin komunikatzeko eta erlazionatzeko duen gaitasuna nabarmen hazi da. Lagunen konpainia behar du eta bere jolasak, esperientziak beraiekin batera bizitzeko gogoia du. Horretarako aukera eman behar zaio.

Imitazio jolasak leku garrantzitsua du. Ikusten eta entzuten duen guztia errepikatzen du, imajinazioaz lagundurik. Mugitzeko gaitasuna du eta talde-jolasekiko interesa. Arauak onartu eta jarraitzea bideratutako jolasen inguruan interes gehiago azalduko du, arauak beste jokalariei batzuekin adostuz. Guztia jakin nahi du eta jolasek bere ezagutza zabaltzeko aukera ematen diote.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Kaleidoskopio eta txibak, bizikletak, patinak, soka-saltoa, akuilu-makuluak, hula hop-a, pilotak...

JOLAS SINBOLIKOAK

Koloretako margoak, klarionak eta arbelak, plastilina, panpinak eta osagarriak, pelutxeak, ibilgailuak, eguneroko bizitza eta lanbideak imitatzen dituzten beste ingurune batzuk, trenak, txotxongiloak, magnetofonoak, mozorroak...

ERAIKUNTZA JOLASAK

50-100 pieza arteko puzzleak, piezekin osatzeko eraikuntza jolasak, koilareak egiteko jolasak, lurrinak, loreak egiteko jolasak, oihalak egitekoak, moldatzekoak...

ARAU JOLASAK

Lotoa, oka, partxisa, dominoa, magia jolasak, memoria lantzekoak, zoriaren araberakoak, kanikak, estrategia-jokoak, xakea, galde-erantzun jolasak, umeentzako ordenagailuak, kirol jolasak, dianak...

8-11 urte

Gauzak ezagutu nahi dituzte. Haurrek elkarren artean erlazionatu nahi dute eta ikasitakoa, taldeko beste kideekin alderatu.

Laguntasunak garrantzia hartzen du; lagun onenaren figura agertzen da. Arau jolasek hartuko dute benetako garrantzia bere gaitasun fisiko eta intelektualak lagunen aurrean adierazteko aukera ematen diotelako. Talde jolasek garrantzia handia hartuko dute.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Kaleidoskopioak, txibak, bizikletak, patinak, monopatinak, eskujokoak, diaboloa, yo-yoak, akuilu-makuluak, kometak...

JOLAS SINBOLIKOAK

Panpinak, maniki-panpinak, scalextric pistak, telezuzendutako autoak, karaokeak, makillajeak, mozorroak...

ERAIKUNTZA JOLASAK

300 pieza arteko puzzleak, sormen artistikoko jolasak, beira-aleak, oihalak, aeromodelismoa, esperimentu zientifiko ximpleak...

ARAU JOLASAK

Kartak, ohiko jokoak (damak, partxisa...), magia jolasak, oroimena lantzekoak, estrategia jolasak, jolas elektronikoak, trebetasun jolasak, lengoia eta hiztegi jolasak, jolas matematikoak, futbolarik, ping-pong-a, bolako...

11-14 urte

Gero eta jolas konplexuagoak aukeratzen ditu. Garrantzitsua da helduek euren jolasak ezagutu eta partekatzeo ahalegina egitea. Jolasa komunikazio eta harremanetarako baliabide garrantzitsua izango da. Arau-jolasek izango dute batez ere, garrantzia.

Jostailuak:

ARIKETA JOLASAK

Bizikletak, patinak, yo-yoak, eskujokoak...

JOLAS SINBOLIKOAK

Pinturak, pelutxeak, scalextric-a, karaokeak, mozorroak...

ERAIKUNTZA JOLASAK

500 pieza arteko puzzleak, egur edo plastikozko eraikuntzak, sormen artistikoko jolasak, maketak...

ARAU JOLASAK

Kartak, memoria lantzeko jolasak, rol jokoak, estrategia jokoak, joko elektronikoak, trebetasun jolasak, jolas matematikoak, futbolarik...



NOLA ERABILI GIDA

Gidan agertzen diren jostailuak ESAR sistemaren arabera daude sailkatuta eta horren baitan, adinaren arabera. Jostailu bakoitzaren argazkiaren alboan, bere datuak jasotzen dituen fitxa ikusiko duzue: jostailuaren izena, zer adinetarako aholkatzen den, argitaratzailea nor den, jostailuaren ezaugarriak eta bere heziketa gaitasunak jaso ditugu fitxa horietan.

JOSTAILUAREN IZENA

Argitaratzailea

Prezioa:

Adina:

Joko mota:

Ezaugarriak: Jostailuaren ezaugarriaren inguruko datu interesgarriak.

Heziketa gaitasunak: Jostailuak suspertzen dituen gaitasunak agertuko dira eta zer ikasteko balio duten.

2005eko jostailu eta CD BERRIAK

Jostailuak

Ariketa jolasak

- ERBIA Alvaro Cebrián artisaua
- AITOR ETA ORDUA Alday technologies

Jolas sinbolikoak

- ITSASONTZIA Alvaro Cebrián artisaua
- OLENTZERO PANPINA Ikastolen elkarte
- JOSTEKO MAKINA Alvaro Cebrián artisaua
- HEGAZKINA Alvaro Cebrián artisaua

Eraikuntza jolasak

- TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PUZZLEA (2X16) Matxinsalto
- TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PUZZLEA (2X25) Matxinsalto
- T-KINATOAK PUZZLEAK Ikastolen elkarte
- FOLK-LOREAK PUZZLEAK Ikastolen elkarte

Arau jolasak

- PC DORTOKA KARAOKE Bizak
- MIXI BASERRIAN Ikastolen elkarte
- PIRRITX ETA PORROTX FAMILIEN KARTA JOKOA Matxinsalto
- ZURDEA PLISTI-PLASTA Urtxintxa
- BADAKit (EDIZIO BERRITUA) Argia jolasak
- ARDIBIDEZ Argia jolasak
- OINEZ OIN Gipuzkoako Bertsozale Elkarte

- AUSKALO! Ikastolen elkarte
- ELUR JAUSIAK Kometa
- ZELAN DERITZOUZU? GATAZKEI BURUZKO JOLASA Gernika gogoratzuz
- ITSASOA JOKOAN Kometa
- T'CHANG Kometa
- HIRU HERRI Axular Kultur Elkarte

CD-ak

- TELETRAKA Tyte Technologies
- URPEKO ERREINUA Elhuyar
- GOGARGI Goiatz multimedia
- EUSKARA IKASTEKO BIDEOJOLASAK Ametsa Soft
- BAZTER GUZTIEI BEGIRA Ikastolen elkarte
- WELLCOME ABOARD Ikastolen elkarte
- MORGANEK HAMAR XARPAK MARMAR Ikastolen elkarte
- JOLASTEKO IPUINAK VII: EGUZKIAREN SORRERA Goiatz multimedia
- ERDI AROA EUSKAL HERRIAN 2 Eusko Ikaskuntza
- SEXU HEZKUNTZARI BURUZKO BIDEOJOLASAK Ametsa Soft
- PUZZLETEK Elhuyar
- EUSKAL HERRIKO AURPEGIAK Elhuyar
- HITZMIX Elhuyar



ARIKETA JOLASAK

Jolas sensoriala eta mugimenduzkoa, ariketa egitea edota berehalako emaitzak lortu eta eragitea helburu duten errepikapenezko jolasak dira ariketa jolasak. Haurrak egiten dituen lehenengoak dira, koska egin edota kolpeak jotzea esaterako, eta jostailuekin zein jostailurik gabe egin daitezke. Ekintza behin eta berriro errepikatzean datza jolasaren xarma. Jostailu mota honen adibidea litzateke txintxirrina.

Hiru urtetik aurrera jolas hauek gaitasun eta mugikortasun ekintzekin lotzen dira. Horien artean daude bizikleta, pilota, eskujokoak, ziba...

Ariketa jolasek hainbat gaitasun garatzen lagundu eta zentzumenen garapena bultzatzen dute, hainbat mugimendu eta desplazamenduren arteko koordinazioa errazteaz gainera. Era berean, kausa-efektu gertaera ulertzen eta lehen arrazoibideak egiten laguntzen dute. Norberak bere burua gainditzeko lagungarri dira, zenbat eta gehiago praktikatuz, hobe izaten baita emaitza.

ERBIA

Alvaro Cebrián artisaua

BERRIA!
2005



Prezioa: 10 €

Adina: 1-3 urte


Joko mota: Ariketa jolasa

Ezaugarriak: Erbiaren mugimendua imitatzen duen egurrezko jostailua da. Arrastaka eramateko soka du.

Heziketa gaitasunak: Manipulazioa bultzatzen du eta kausa-efektu erlazioa barneratzen laguntzen du. Motrizitate orokorra eta desplazamendua garatzen ditu.

SKIPIBALL, KANGUROA, ESERLEKU SALTARIA

Amaya Sport



Prezioa: 10,60 €tik 17,50 €ra

Adina: 3 urtetik aurrera

Joko mota: Ariketa jolasa

Ezaugarriak: Gomazko pilota handiak dira eta gainean eserita saltoka ibil daitezke haurrak.

Heziketa gaitasunak: Begien eta eskuen arteko koordinazioa, lateralitatea, indarra, zehaztasuna, koordinazioa eta kontzentrazioa lantzen dira.

Prezioa: 6,75 €

Adina: 3 urtetik aurrera

Joko mota: Ariketa jolasa. Trebetasun jolasa

Ezaugarriak: Altuera txikia duten zankoen gainean jarriko da haurra eta soka batzuen bidez eutsiko ditu. Atzera eta aurrera ibili beharko du zankoen gainean.

Heziketa gaitasunak: Begien eta eskuen arteko koordinazioa, lateralitatea, indarra, zehaztasuna, koordinazioa eta kontzentrazioa lantzen dira.

ZANKO BAXUAK

Amaya Sport



BERRIA!
2005

AITOR ETA ORDUA

Alday technologies



Prezioa: 19,95 €

Adina: 4 urtetik aurrera

Joko mota: Ariketa jolasa. Arau jolasa

Ezaugarriak: Haurrei orduak nola esaten diren ikasteko aukera ematen dien jostailu koloretsua da. Erlojuaren orratzak mugitu egiten dira eta hontzak zer ordu den esaten du hiru hizkuntzatan: euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Hizkuntza bakoitzeko hiru jarduera ditu jostailuak. Pilak barne.

Heziketa gaitasunak: Ordua ikasten hasteko egokia da, euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez. Ikusmen bidezko bereizketa bultzatzen du eta espazio-antolaketa bizkortzen du. Esku eta begien arteko koordinazioa garatzen du. Logika eta oroimena ere lantzen ditu.



DIABOLOAK

Amaya Sport



Prezioa: 2,75 €tik 9,40 €ra

Adina: 5 urtetik aurrera

Joko mota: Ariketa jolasa. Trebetasun jolasa

Ezaugarriak: Soka batez lotuta dauden bi makila helduleku gisa hartuz, soka mugitu eta diabloarekin jolastea da helburua. Haur txikientzako diaboloa, kristalezkoa, kautzoz egindakoa... aukera daitezke.

Airera bota daiteke, sokaren gainean dantzan ibili...

Heziketa gaitasunak: Begien eta eskuen arteko koordinazioa, lateralitatea, indarra, zehaztasuna, koordinazioa eta kontzentrazioa lantzen dira. Pazientzia eta jarraitkortasuna beharrezkoak dira.

Prezioa: 7,00 €

Adina: 6-9 urte

Joko mota: Ariketa jolasa. Trebetasun jolasa. Arau jolasa

Ezaugarriak: Kolore jakina duen jolaskideak pilota airera bota behar du eta hura harrapatu baino lehen, bere koloreko ahalik eta tortoloxa gehien harrapatu behar du.

Heziketa gaitasunak: Begien eta eskuen arteko koordinazioa, lateralitatea, indarra, zehaztasuna, koordinazioa eta kontzentrazioa lantzen dira.



TORTOLOXAK

Amaya Sport

MONOZIKLOA

Amaya Sport



Prezioa: 61,00 €

Adina: 9 urtetik aurrera

Joko mota: Ariketa jolasa. Trebetasun jolasa

Ezaugarriak: Gurpil bakarreko zikloa da. Pedalei eraginez ibiltzen da.

Heziketa gaitasunak: Begien eta eskuen arteko koordinazioa, lateralitatea, indarra, zehaztasuna, koordinazioa eta kontzentrazioa lantzen dira.



JOLAS SINBOLIKOAK

Gauzei, pertsoneri, ekintzei edota gertaerei esanahi berriak ematen dizkieten jolasak dira. Gertaerak irudikatzen ditu eta rolen bidez eta asmatutako edo egiazko pertsonaien bidez, eszena sinesgarriak interpretatzen ditu. Helduen imitazio jokoa da. Jolas mota hau 2 urte ingururekin erabiltzen hasten da eta haurra adinean aurrera joan ahala, gero eta konplexuagoa da. Lehen urteetan gertuko bizimoduan oinarritzen da (mutil-neska kontzeptuak, familia, animaliak, eskola, etxea, jostailuak...), eta gero, urrunago dauden inguruetan (irakasleak, gizarte rola, fikziozko pertsonaiak...). 8 urtetik aurrera jolas sinbolikoaren garrantzia gutxitzen hasten da. Jostailu hauen adibide dira pelutxeak, musika tresnak, super-heroiak, mozorroak eta modu batera edo bestera nagusien mundua errepikatzen duten jolas guztiak.

Jolas sinbolikoak oinarritzkoak dira hurrek gure ingurua uler dezaten. Jolas hauekin zer dagoen ongi eta zer gaizki ikasi eta praktikan jartzen dute eta berdin gertatzen da gizartean ezarrita dauden rolekin ere. Lengoiaren garapena jolas mota honekin lotuta doa, jolasten ari direnean gauzak hitzez adierazten baitituzte. Irudimena eta sormena ere bultzatzen ditu jolas sinbolikoak. Garrantzizkoa da zein rol mota imitatzen dituzten lantzea, sexismoa eta lehiakortasuna bezalako balore negatiboak ez sustatzeko.

EUSTAKI ASTOTXO LOTIA

Ikastolen elkarte



Prezioa: 16,20 € txikiak / 21,70 € handiak

Adina: 0 hilabetetik aurrera

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Imitazio jolasa

Ezaugarriak: Haur txikiarentzako pelutxea da. Apatxa estutuz gero, zurrungaka hasten da. Umeentzako maskota da, lotarako nahiz kalerako. Bi neurritan aurki daiteke: 28 zentimetroko luzera du txikiak eta 50 zentimetroko handiak.

Heziketa gaitasunak: Afektibitatea garatzen laguntzen du eta pertzepzio sensoriala suspertzen du. Lotura afektiboak sor ditzake eta baita haurra pertsonaia horiekin identifikatzea ere. Lengoaia garatzen du eta irudimena bultzatzen du. Kausa-efektua (estutu-zurrunga) ulertzen laguntzen du.



ITSASONTZIA

Alvaro Cebrián artisaia



**BERRIA!
2005**

Prezioa: 10 €

Adina: 2-6 urte

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Maneiu jolasa

Ezaugarriak: Uretan edota lurtean jolasteko aukera ematen du. Izan ere, artisaia erabili duen itsasgarria indartsua da uretan jostailua desegin ez dadin.

Heziketa gaitasunak: Manipulatzeko ahalmena garatzen du haur txikiengan. Aurrerago izaera sinbolikoagoa duen jolasa sortuko dute, istorioak asmatzea erraztuz eta egoerak antzetzuz. Imajinazioa eta aho adierazpena bizkortzen ditu.

Prezioa: 19,95 €

Adina: 3 urtetik aurrera

Joko mota: Jolas sinbolikoa

Ezaugarriak: Olentzeroren irudia duen panpina da. Eskuan zapalduz gero, Olentzeroren abestia abesten du eta dantzan hasten da.

Heziketa gaitasunak: Jolas sinbolikoaren bidez eta Olentzerok esaten dituen esaldien asimilazio eta interpretazioaren bidez ahozko adierazpena hobetzeko aukera ematen du. Imajinazioaren garapena bultzatzen du eta kausa-efektu erlazioaren ulermena ahalbidetzen du. Afektibitatea garatzeko jostailu egokia da.



**BERRIA!
2005**

OLENTZERO

Txanela Kulunkan

LAMINE KIROLARIA

Ikastolen elkarte



Prezioa: 23,80 €

Adina: 3 urtetik aurrera

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Maneiu jolasa. Errepresentazio jolasa

Ezaugarriak: Arbela eta letra magnetikoek osatutako jolasa da. Letra eta zenbaki magnetikoak ditu eta arbelarentzako osagarriak dakartza. Laminaren 12 irudi ditu pintatzeko. Bertan Lamine eta Argitxo kirola egiten ikusiko ditugu; sokatiran, zaku-lasterketan, surfean, txingak eramaten, segan, eskupilotan, futbole... Haurrek egoera horiek edo beste batzuk irudika ditzakete arbelean. Kirol jarduera bakoitzarekin lotura duen hiztegia ere agertzen da, hizkuntza gaitasunak hobetzeko eta idazten eta irakurtzen jolasteko.

Heziketa gaitasunak: Koordinazioa eta esku-zehaztasuna bultzatzen ditu, grafomotritzitatea erraztuz. Hizkien trazatua eta irakurketa eta idazketa prozesuak lantzeko egokia da. Irudi eta hitzen arteko asoziazioa errazten du, baita hiztegi eta zenbakien ezagutza ere.

Ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzen laguntzen du. Inguru fisiko eta sozialaren ezaguera ere bai; izan ere, herri tradizio kirolak eta bestelakoak ezagutuko ditu haurrak. Arrazonamendu logikoa, irudimenaren garapena eta sormena indartzen ditu.

BETIZU PANPINAK (BETIZU, BETISUIS ETA MU)

Txanela Kulunkan



Prezioa: 10 €

Adina: 3-6 urte

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Maneiu jolasa

Ezaugarriak: Kolore ezberdinetako panpina hauek ETB-1eko haur saioko panpinak irudikatzen dituzte.

Heziketa gaitasunak: Jolas afektiboa bultzatzen du sentimenduen adierazpenaren bitartez. Lotura afektiboak sor ditzake eta baita pertsonaia horiekin identifikatzea ere. Lengoaiaren garapena eta irudimena bultzatzen ditu.

BETIZU KITARRA

Txanela kulunkan



Prezioa: 20 €

Adina: 6-10 urte

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Imitazio jolasa

Ezaugarriak: Soin-uhala duen gitarra elektronikoa da. Soinua eta argia egiten ditu.

Heziketa gaitasunak: Musikarekin ohitzea ahalbidetzen du. Atentzioa, memoria eta erritmoa erabiltzen ditu. Mugimenduen koordinazioa hobetzen du. Adierazpen artistikoa errazten du.

JOSTEKO MAKINA

Alvaro Cebrián artisaua



BERRIA! 2005

Prezioa: 20 €

Adina: 6-12 urte

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Maneiu jolasa

Ezaugarriak: Josteko makinaren mugimendua imitatzen duen egurrezko jostailua da. Gurpil handiari eraginez, jostorratza eta haria igo eta jaisten dira, egiazko josteko makinetan bezala.

Heziketa gaitasunak: Manipulatzeko ahalmena garatzen du haur txikiengan. Aurrerago izaera sinbolikoagoa duen jolasa sortuko dute, istorioak asmatzea erraztuz eta egoerak antzetzuz. Imajinazioa eta ahoko adierazpena bizkortzen ditu.



HEGAZKINA

Alvaro Cebrián artisaua



BERRIA! 2005

Prezioa: 35 €

Adina: 6-12 urte

Joko mota: Jolas sinbolikoa. Maneiu jolasa

Ezaugarriak: Jostailu gisa edo dekoraziorako erabil daiteke. Helizea eta gurpilek birak ematen dituzte eta kabinan agindu-koadroa ere badu.

Heziketa gaitasunak: Manipulatzeko ahalmena garatzen du haur txikiengan. Aurrerago izaera sinbolikoagoa duen jolasa sortuko dute, istorioak asmatzea erraztuz eta egoerak antzetzuz. Imajinazioa eta ahozko adierazpena bizkortzen ditu.





ERAIKUNTZA JOLASAK

Lotu beharreko piezak dituzten jolasak, muntaia jolasak eta antzekoak sartzen dira eraikuntza jolasen multzoan. Jolas mota hau eraikitzeo helburuarekin egiten da eta eraikuntza hori koordinatutako hainbat mugimendu eta ekintzen bidez lortzen da. Bizitzako lehen urteetan eraikuntzak oso sinpleak izaten dira, eta askotan, pertsona heldu baten laguntza behar izaten dute. Adinean aurrera joan ahala, eraikuntzak landuagoak dira eta beharrezkoa izaten da jostailuaren egileak emandako azalpenei jarraitzea.

Jolas mota hauen adibideak dira puzzleak, mekanoak, eraikitzeo maketak eta emaitza jakin bat lortzeko piezak elkartu edota pilatu behar diren jolasak.

Eraikuntza jolasak begien eta eskuen arteko koordinazioa suspertzen dute, baita formen eta koloreen bereizketa, arrazoibidea, leku antolaketa, arreta, gogoeta, memoria logikoa, kontzentrazioa, pazientzia eta azalpenak jarraitzeko gaitasuna ere. Autoestimuari mesede egiten diote eta norberak bere burua gainditzen laguntzen dute.

TXIRIBIRI 1

Ttarttalo



Prezioa: 22,50 €

Adina: 3-4 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa

Ezaugarriak: Koloreak eta zenbakiak era dibertigarrian ikasteko jolasa da. Kartoizko fitxa batzuen bidez kolore ezberdinak eta zenbakiak (kantitateak) ezagutzeko aukera ematen zaio haurrari. Animalien puzzlea ere osatu behar da.

Heziketa gaitasunak: Kolore eta zenbakien ezagutza bultzatu nahi du jostailu honek. Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzen ditu. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.



ZENBAT DIRA?

Ikastolen elkarteak



Prezioa: 16,00 €

Adina: 3-5 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa.

Disposizio jolasa. Jolas matematikoa

Ezaugarriak: Bi piezako 10 jolas ditu. Elkarteta jolasa da. Zenbaki bakoitza objektu kopuru berdina duen piezarekin elkartu behar da. Helburua, 1etik 10era bitarteko zenbakiak ikastea da.

Heziketa gaitasunak: Jolas honek haurrei zenbakiak ikasten lagunduko die. Zenbakien eta kantitatearen arteko erlazioaz jabetuko dira eta zenbakien adierazpen grafikoa ikasiko dute.

Azkenik, zenbakiak kantitatearen arabera ordenatzen ikasiko dute.

Prezioa: 16,10 €

Adina: 3-5 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa.

Hiztegi jolasa

Ezaugarriak: Irakurtzen ikasten hasteko jolasa da, 2 zatiko 10 puzzle dituen. Bi pieza elkartu behar dira eta txikiak bokala ikasten hasteko aukera ematen du, hainbat objektu eta animaliarekin erlazionatuz.

Heziketa gaitasunak: Jolas honek bokalen ezagutza errazten du; bakoitzaren hotsa eta adierazpide grafikoa, letra xehez nahiz larriz. Formen, koloreen, objektuen eta letren identifikazioa eta bereizketa ahalbidetzen ditu. Haurrek hiztegi letrak ezagutzea errazten du. Mugimenduak koordinatzen, espazioa antolatzen eta arreta garatzen laguntzen du.



BOKALAK

Ikastolen elkarteak

OLENTZERO PUZZLEAK

Ikastolen elkarteak



Prezioa: 10 €

Adina: 3-6 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa

Ezaugarriak: 20 zatiko bi puzzle dira. Bakoitzean Olentzeroren lau eszena irudikatzen dira.

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, jolas sinbolikoak egiteko aukera ematen du.

SILABAK ETA HITZAK

Ikastolen elkarteak



Prezioa: 11,65 €

Adina: 3-6 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa
Ezaugarriak: 24 puzzle txiki dira. Silaba zuzenak, alderantzizkoak eta mistoak. Haurrak hitza silabatan nola banatzen den ikasiko du, baita silaba horiek nola irakurtzen eta idazten diren ere. Silaba, ahots-jaulkipen bakarrean ahoskatzen den fonema/fonema-talde batek eta letra/letra-talde batek osatzen dute. Irudi hauetan agertzen diren silabak, irakurketa-idazketa prozesuan errazten dira; irudi gehienak silaba zuzenez osatuak dira (la). Hala ere, alderantzizko silabak (al) eta silaba mistoak (lar) dituzten hitz batzuk ere sartu dituzte.

Heziketa gaitasunak: Jolas honen bitartez, hitz errazen irakurketa bultzatu nahi da. Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, joko sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.

Prezioa: 9 €

Adina: 3-6 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa

Ezaugarriak: Egurrezko bi puzzle dira. Bakoitzak 16 pieza ditu eta horietan Takolo, Pirritx eta Porrotxen ohiko bi eszena osa daitezke (itsasoa eta hegazkina).

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, jolas sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.



**BERRIA!
2005**

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PUZZLEA (2x16)

Matxinsalto

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PUZZLEA (2x25)

Matxinsalto



**BERRIA!
2005**

Prezioa: 9 €

Adina: 3-6 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa

Ezaugarriak: Egurrezko bi puzzle dira. Bakoitzak 25 pieza ditu eta horietan Takolo, Pirritx eta Porrotxen ohiko bi eszena osa daitezke (erratzaren gainean eta oihanean).

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, jolas sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.



LETRA JOKOA

Tarttalo



Prezioa: 9,95 €

Adina: 3-7 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa. Hiztegi jolasa

Ezaugarriak: Elkarrekin bat egiten duten piezak ditu eta horietan irudiak agertzen dira dagokien hitz eta letrekin. Asoziazio jokoa da eta irudi bakoitza dagokion hitzarekin lotu behar da. Euskarazko eta ingelesezko lehen hitzak ikasten laguntzen du.

Heziketa gaitasunak: Letrak ikasten laguntzen du eta baita irudiak hitzekin lotzen ere. Horregatik euskarazko eta ingelesezko hitzak ikasteko aukera eskaintzen du. Formen, koloreen, objektuen eta letren identifikazioa eta bereizketa ahalbidetzen ditu. Haurrek hiztegioko letrak ezagutzea errazten du. Mugimenduak koordinatzen, espazioa antolatzen eta arreta garatzen laguntzen du.

Prezioa: 9,95 €

Adina: 3-7 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa. Jolas matematikoa

Ezaugarriak: Asoziazio jokoa da eta helburua zenbakiak marrazkidun piezekin elkartzea da. Euskaraz zein ingelesez zenbakiak ikasten laguntzen du.

Heziketa gaitasunak: Zenbaki kontzeptuarekin ohitzen laguntzen du, baita zifren eta objektuen arteko erlazioa ulertzen ere. Formen, koloreen, objektuen eta letren identifikazioa eta bereizketa ahalbidetzen ditu. Mugimenduak koordinatzen, espazioa antolatzen eta arreta garatzen laguntzen du.



ZENBAKI JOKOA

Tarttalo

TXIRIBIRI 2

Tarttalo



Prezioa: 22,50 €

Adina: 4-5 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa

Ezaugarriak: Alfabetoa marrazkien bidez era dibertigarrian ikasteko jolasa da. Kartoizko fitxetan egindako marrazkien bidez alfabetoa ikasteko aukera ematen dio haurrari. Baserri baten puzzlea ere osatu behar da.

Heziketa gaitasunak: Hizkien eta baserriko munduaren ezagutza bultzatu nahi du jostailu honek. Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzen ditu. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.

EUSKAL ALFABETOA

Ikastolen elkartea



Prezioa: 11,20 €

Adina: 4-6 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa
Ezaugarriak: 28 zatiko puzzlea da, 70x38 zentimetroko neurria duena. Pieza bakoitza alfabetoko letra bat da. Horietako bakoitzean animalia, pertsonaia edo objektu baten irudia agertzen da. Irudiaren izena, pieza horretan dagoen letrarekin hasten da.

Heziketa gaitasunak: Formen, koloreen, objektuen eta letren identifikazioa eta bereizketa ahalbidetzen ditu. Haurrek hiztegiko letrak ezagutzea errazten du. Mugimenduak koordinatzen, espazioa antolatzen eta arreta garatzen laguntzen du.

Prezioa: 14,50 €

Adina: 4-7 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa
Ezaugarriak: 30 piezako bi puzzle dira. Puzzle bakoitzean 10 zati handi daude, neska edo mutilaren gorputza osatzen dutenak eta beste 20 pieza txiki, beste horrenbeste gorputz atal eta horiei dagozkien izen eta guzti. Lehendabizi gorputzaren irudia agertzen den puzzlea osatu behar da pieza handiekin eta ondoren, irudi horren inguruan kokatuko dira gorputz-atalak dituzten zatiak.

Heziketa gaitasunak: Giza gorputzaren eta horrekin lotura duen hiztegia ikasten laguntzen du. Begien eta eskuen arteko koordinazioa garatzen du eta oroimena eta ikusmena lantzen ditu. Espazioaren, arretaren, ikusmenaren, oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten laguntzen du. Irudimena landuz, joko sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.



NIRE GORPUTZA

Ikastolen elkartea

3D PUZZLEAK. EUSKAL INAUTERIAK

Ikastolen elkartea



Prezioa: 13,20 €

Adina: 4-7 urte

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa

Ezaugarriak: 50 zatiko Inauterietako bi puzzle dira. Bertan Miel Otxin, Marquitos, Atorrek, Kotilungorriak, Erralditoxoak, Zakuzaharrak, Zamaltzain, Joaldunak, Hartza eta Mamoxzarroak ikusteko aukera izango dugu. Jolasak 3D betaurrekoak eskaintzen ditu, irudiok ikusteko.

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, joko sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.



LETRAZ LETRA

Ikastolen elkarteak



Prezioa: 11,85 €

Adina: 5-8

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Muntaia jolasa. Disposizio jolasa

Ezaugarriak: Irakurketa-idazketa lantzeko jokoa da. Irudiak eta letrak lotu eta hitza osatzeko puzzlea egin behar da. 55 letra eta 15 irudi eskaintzen ditu. Jolas honen bitartez hitz errazen irakurketa bultzatu nahi da; haurrak hitza letretan nola banatzen den ikasiko du, eta nola letrak elkartuz, silabak eta hitzak sortzen diren. Joko honetarako irudien izenak osatzeko behar diren silabak, irakurketa-idazketa prozesuko errazenak dira. La silaba guztiak zuzenak dira eta kontsonante guztiak sartu dituzte.

Heziketa gaitasunak: Letrak ikasten laguntzen du eta baita irudiak hitzekin elkartzen ere. Horregatik hitz berriak ikasten laguntzen du. Formen, koloreen, objektuen eta letren identifikazioa eta bereizketa ahalbidetzen ditu. Haurrek hiztegiko letrak ezagutzea errazten du. Mugimenduak koordinatzen, espazioa antolatzen eta arreta garatzen laguntzen du.

Prezioa: 9 € (puzzle bat), 16 € (bi puzzle)

Adina: 6 urtetik aurrera

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Elkarteta jolasa

Ezaugarriak: Koloreak eta formak uztartuz hirukiekin (batean) eta hexagono eta hirukiekin (bestean) puzzlea osatzea da helburua. Txikienek helduen laguntza beharko dute puzzlea osatzeko eta pazientzia beharko dute denek ere, nahi den irudia lortu ahal izateko.

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiaketa garatzeaz gain, koloreen eta formen bereizketa ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, jolas sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulaziorako gaitasuna garatzen du.




MOKOGORRI PUZZLEAK: HEXAGONOAK ETA HIRUKIAK

Argia jolasak

T-KINATOAK PUZZLEAK

Ikastolen elkarteak



Prezioa: 7,75 €

Adina: 6 urtetik aurrera

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Elkarteta jolasa

Ezaugarriak: Puzzlearen 24 zatiak magnetikoak dira eta elkarri lotuta daude. Puzzlea osatzeko euskarri magnetikoa dago. Bina esaera zahar irakur daitezke puzzlea osatzean. Kukuxumusuk egin du diseinua.

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiaketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, joko sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.

FOLK-LOREAK PUZZLEAK

Ikastolen elkarteak



BERRIA!
2005

Prezioa: 14,90 €

Adina: 6 urtetik aurrera

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Elkarketa jolasa
Ezaugarriak: Euskal Herriko kultur tradizioko irudi ikusgarriak ikusi ahal izango dira puzzlea osatuz gero. Bi puzzle dira, 150 eta 260 piezakoak.

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, joko sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.

Prezioa: 12,00 €

Adina: 6 urtetik aurrera

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Elkarketa jolasa

Ezaugarriak: 126 zatiko puzzlea. Bertan agertzen dira: mendiak, ibaiak, herriak, ezaugarri ekonomikoak, kulturalak eta beste hainbat eta hainbat gauza.

Heziketa gaitasunak: Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du. Irudimena landuz, joko sinbolikoak egiteko aukera ematen du. Manipulatzeko gaitasuna garatzen du.

EUSKAL HERRIKO MAPA PUZZLEA

Ikastolen elkarteak



URDAIBAI PUZZLEA

Ikastolen elkarteak



Prezioa: 13,00 €

Adina: 8 urtetik aurrera

Joko mota: Eraikuntza jolasa. Elkarketa jolasa

Ezaugarriak: Gazte zein helduentzako puzzlea da; 1000 piezakoak, 48x68 zentimetroko neurria duena eta Urdaibaiko argazki bat ikus daiteke behin osatua dagoenean.

Heziketa gaitasunak: Ingurugiroari dagokionez garrantzia handia duen Bizkaiko gunea ezagutzeko aukera ematen du. Espazioaren, arretaren, ikusmenaren eta oroimenaren antolaketa eta arrazoiketa garatzeaz gain, koloreak eta formak bereizten ikasten laguntzen du; aditasuna eta ikuste-hautematea eta ikuste- oroimena lantzeko egokia da. Irudimena landuz, jolas sinbolikoak egiteko aukera ematen dio haurrari eta manipulaziorako gaitasuna garatzen laguntzen du.